

1.- DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen helburua da arkitekto tekniko bat aldi baterako kontratatzea.

Kontratuaren iraupena lanpostuaren titularraren behin betiko erretiroa gertatu artekoa izango da, 2009ko azaroaren 18a arte.

Lanpostua sailkapeneko B taldekoa da eta 18. mailari dagokion soldata-maila du.

Halaber 4. Hizkuntza eskakizuna du, derrigorrezkoa.

Lan egunak eta ordutegia udalak urtean finkatutakoak izango dira, beti ere lanpostuaren izaera eta premien arabera.

Kontratzen denak kontratuak irauten duen denboraldian uko egingo balio kontratuari deialdi honetan oposizio-lehiaketa gainditu dutenetara joko da lortutako puntuazioaren hurrenkera errespetatuz.

2.- EGITEKOAK

Honako hauek dira lanpostuari dagozkion egitekoak:

* Aholkularitza teknikoa:

- Gaiak prestatzea, eta Obra eta Hirigintza Batzordean parte hartzea, dagokion jarduera-esparruko alderdiei buruzko azterketa-, txosten-, edo kontsulta-eginkizunak betetzeko.
 - Baldintza-orriak, ordenantzak eta araudiak egitea bere ardura-eremuan, baita egoki irizten diren aldaketak aztertzea eta proposatzea ere.
 - Hirigintza-lizentziei buruzko txosten teknikoak egitea, hauei buruzkoak: Ekimen pribatuko eta udal-ekimeneko proiektuen exekuzioa, zuinketa-aktak, lanen ziurtagiriak, lanen harrera, hirigintza-kontsultak, etab. Lanpostuaren eskumen-esparrua dela-eta, kudeaketako eta hirigintza-diziplinako espedienteetan beharrezkoa bada, txostenak egin beharko ditu. Horretarako, obrak ikuskatu eta kontrolatu egin beharko ditu, eta horien jarraipena egin, izapide guztiak erabat amaitu arte.
 - Honako hauei buruzko txosten teknikoak egitea: Sailkatutako jardueretarako irekiera-lizentziei, salbuetsiei, ikuskizunetako baldintzak betetzen direla egiaztatzeke zaintzei, bide publikoaren okupazioari, elementu osagarriei (hesiak, aldamiok, edukiontzia, garabiak, etab.), zehapen-espedientei, fidantzen itzulpeni eta abarri buruzko txostenak, alegia. Lanpostuaren eskumen-esparrua dela-eta, kudeaketako eta hirigintza-diziplinako espedienteetan beharrezkoa bada, txostenak egin beharko ditu. Horretarako, lanak ikuskatu eta kontrolatu egin beharko ditu, eta horien jarraipena egin, izapide guztiak erabat amaitu arte.
 - DBSI (lehen, CPI-96) betetzeari eta garajeetako jarduera-proiektuei buruzko txosten teknikoak egitea.
 - Udalak beharrezkotzat jotzen dituen obra-proiektuak idaztea.
 - Hirigintza-inspektzioaren plangintza eta programazioa egitea; horretarako, beharrezko diren ikerketak egingo dira, eta sor daitezkeen zehapen-espedienteak bultzatzea.
 - Udal-inbertsioei (ondasun-erosketak, -salmentak, edo -trukeak) eta hirigintza-balorazioei buruzko aholkularitza ematea, aurrekontu eta guztiko txostenak eginez.
 - Berari emandako obrak zuzentzea edo beste hirugarren batzuei kontrataturiko obrak ikuskatzea eta koordinatzea. Halaber, obren neurketa egitea eta egiaztatzea, eta dagozkien obra-ziurtagiriak egitea.
 - Udalerriaren, sareen eta azpiegituren dokumentazio egokiaz eta eguneratze kartografikoaz arduratzea, baita kudeaketa teknikoaren dokumentuen artxiboaz ere.
 - Lanpostuari dagokion jarduera-eremuari buruz arau subsidiarioetan zehaztutako helburuak behar bezala gauzatzeko eta lortzeko arduratzea.
 - Espedienteen kudeaketan laguntzea.
- * Obrak, Mantenua eta Zerbitzuak:
- Zerbitzuen azpiegitura eta udal-eraikinak behar bezala edukitzeko ezarritako helburuak lortu ahal izateko egin behar diren jardueren plangintza eta programazioa egitea.

- Berari eman zaion lan publikoaren kontratazioa zuzentzea: Agintzen zaizkion baldintza-orriak eta proiektu teknikoak/aurrekontuak egitea, bai eta aurkezturiko proposamenen balorazio teknikoa egitea ere.
 - Berari emandako lanak zuzentzea edo beste hirugarren batzuei kontrataturiko obrak ikuskatzea eta koordinatzea. Halaber, lanen neurketa egitea eta egiaztatzea, eta dagozkien lan-ziurtagiriak egitea.
 - Idazten diren proiektuetako segurtasun-azterketak eta/edo laneko segurtasun eta osasuneko oinarritzko azterketak egitea.
 - Lanen enpresa esleipendunek lan-zentroak irekitzeko egindako segurtasun-planak ikuskatzea eta kontrolatzea.
 - Lan-arriskuak prebenitzeko arauak betetzea eta betearaztea.
- * Beste batzuk
- Zenbait egoera direla-eta (zereginen pilaketa, huts-egiteak, gaixotasunak), sailari atxikiriko beste langileekin lankidetzan aritzea.
 - Herritarrei eskatutako informazioa eta aholkularitza eskaintzea.
 - Lankideei aholkua eta laguntza ematea, bere ezagutzengatik eta/edo esperientziengatik lanbide-trebetasun handiagoa duen lanetan.
 - Sailaren bitartekoen eta instalazioen erabilera egokia, zainketa eta mantentze-lanak kontrolatzea.
 - Aipaturiko lanez gain, beste lan batzuk egitea: Ezarritako helburuak betetzeko agintzen zaizkionak eta bere lanbide-gaitasunekin eta -trebeziekin bat datozenak.

3.- BALDINTZAK

Onartua izateko eta, hala badagokio, neurketan parte hartzeko, ondorengo baldintzak bete behar dituzte hautagaiek:

- a) Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea edukitzea, edo Europar Batasunak egin eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen bidez langileen zirkulazio askea duten estatuetakoa izatea.

Aurkez daitezke, halaber, Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea dutenen ezkontideak ere, baldin eta zuzenbidez banatuta ez badaude, bai eta haren ondorengoak eta bere ezkontide zuzenbidez banatu gabearen ondorengoak ere, hogeita bat urte baino gutxiago badituzte, edota gehiago izanik ere haien kontura bizi badira

- b) 16 urte beteak edukitzea.
- c) Lanpostuaren beraren eginkizunak normal betetzea galaraziko lukeen eritasunik eta tatxa fisikorik nahiz psikikorik ez edukitzea. Egoera hori bere garaian egiaztatu beharko da Enpresako Medikuntza zerbitzuak bakoitzari egingo dion Osasun azterketaren bidez.
- d) Diziplinazko espedientea dela medio, Estatuko, Autonomi Elkarteko nahiz udal erakundeen menpeko lanetik banandua ez izana, ezta ere herri eginkizunetan aritzeko.
- e) Indarrean dagoen araudiaren arabera legezko ezgaitasun edo bateraezintasun kasuren baten ez egotea, beti ere legeak ematen duen aukeratzeko eskubidea alde batera utzita.
- f) Langabezia egoeran eta INEM-en inskribatua egotea kontratatzerakoan.
- g) Arkitekto Teknikoaren titulazioa esku artean izatea edo hura eskuratzeko ordaindu beharrekoak ordainduta izatea.
- h) 4. hizkuntz eskakizunari dagokion euskara maila, derrigorrezkoa.
- Oinarri honetan zerrendatutako baldintzak, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean bete eta kontratua egin arte mantendu egin beharko dira. f) azpiatalean ezartzen den baldintza bere unean kreditatu beharko da.

4.- INSTANTZIAK

3. oinarrian jasotako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute lehiaketa-oposizioan parte hartzeko aurkezten den eskabidean. Halaber, eskatutako tituluaren agiriaren fotokopia, nortasun agiriaren fotokopia eta alegaturiko merezimenduen egiaztagiria erantsiko zaizkio.

Laneko esperientzia egiaztatu beharko da lan egindako enpresek edo administrazioek egindako ziurtagirien bidez, bertan kontratuaren iraupena, dedikazioa eta lanaren eginkizunak zehaztuz. Esparru pribatuko esperientzia egiaztatzeke, gainera, Gizarte Segurantzari kotizatu izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

Eskabidean Bergarako Udalean egindako zerbitzuak eta laneko esperientzia adierazi baditu, ez da agiri bidez egiaztatu beharrik izango, eta izangai bakoitzaren espedientean azaltzen diren datuen arabera baloratuko da.

Instantzia horiek Alkate-Udalburuari zuzenduko zaizkio eta Udaletxeko Erregistro Nagusian aurkeztuko dira, edo Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoa eta Prozedura Administrazio Bateratuaren Legeko 38.4 artikuluan xedatutako moduan deialdiaren iragarpena *Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunaren biharamunetik 20 egun naturalen epean.

5.- IZANGAIEN ONARPENA

Instantziak aurkezteko epea amaiturik, Udaleko Lehendakariak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du eta Udaletxe honetako iragarki taulan argitaratuko da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunean.

Lehenengo frogaren eguna onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendarekin batera argitaratuko da.

Behin behineko zerrenda hori behin betikotzat hartuko da 3 laneguneko epean inolako erreklamaziorik jartzen ez bada. Erreklamazioak baleude, behin betiko zerrenda onartuko duen ebazpen baten bitartez onartuak edo baztertuak izango dira.

Epaimahaiak egokien irizten dion moduan emango du ondorengo ariketen berri. Egitezko akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira ofizioz edo interesatuaren eskariz.

6.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

6.1. Osaera: Deituriko hautaketa prozesuaren epaimahai kalifikatzailea ondokoak kontuan izanda eratuko da: Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 60. artikuluan, ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 8/1989 Legearen 31. artikuluan ezarritakoa. Epaimahai mahaiburuak, idazkariak eta alkate-lehendakariak dekretu bidez erabakitako kideek osatuko dute eta inoiz ez dira izango bost baino gutxiago. Langileen ordezkariak izendatutako kide batek eta euskara zerbitzuburuak hartuko dute parte epaimahaian. Epaimahai osatzen duten titularren eta ordezkoen izen zerrenda Udaleko iragarki taulan argitaratuko da, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin alkatetza-lehendakariak izendatuta.

Udalan presentzia duten alderdi politikoen ordezkariak parte har dezakete begirale moduan.

6.2. Espezialitatea: Epaimahaiaren eraketa teknikoa izango da batez ere, eta boto eskubidea duten kide guzti-guztiak izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

6.3. Abstentzia eta errefusatzeta. Epaimahai kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkate-lehendakariari jakinaraziko diote Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 28. artikuluan oharmandako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaiak mahaikideak ezetsi ditzakete aipatu legearen 29. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

6.4. Aholkulariak: Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

6.5. Eraketa eta lan egitaraua: Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezkari gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzeko neurri guztiak hartuko dira.

6.6. Jarduketa prozedura:

a) Epaimahaiaren jarduna, uneoro, Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahaia ezin osatu ahal izango da eta jardun ere ez, titularretako edo ordezkari diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude, Idazkaria kontuan hartu barik. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto berdinketa egonez gero, epaimahaiaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiak hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik. Idazkariak hitza baino ez du izango.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

c) Epaimahaiak ezingo ditu deialdian iragarritako lanpostuen kopurua baino izangai gehiago hautatu. Betiere sortu daitezkeen kontratazio premiei erantzuteko proposaturiko izangaien ondorengo izangaiez osaturiko zerrenda osagarria eskatu ahal izango zaio epaimahaiari,.

d) Izangai batek ere gaindituko ez balitu baztertzailak diren proba guztiak, deialdia hutsik aitortuko da.

7.- HAUTAKETA PROZEDURA

Izangaiak hautatzeko prozedurak hurrengo aldiak izango ditu:

- a) Oposizioaldia
- b) Lehiaketaldia

Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo da. Epaimahaiak ariketak egiteko jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak -baita ezinbesteko arrazoiengatik bada ere- hauta-prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

OPOSIZIOALDIA:

Oposizioaldia honako ariketa hauek osatuko dute:

— **Lehenengo ariketa**: Teoria orokorra. Derrigorrezkoa eta baztertzaila.

Oinarri hauen I eranskinean jasotzen diren gaiei buruzkoa. Erantzun anitzeko galdera-multzo bati erantzun beharko zaio.

Ariketa hau 0 tik 10 puntura baloratuko da, eta gainditzeko, gutxienez, 5 puntu lortu beharko dira.

— **Bigarren ariketa**: Teorikoa eta/edo praktikoa. Derrigorrezkoa eta baztertzaila.

Oinarri hauen II. eranskinean jaso diren eta lanpostuak dituen ardurekin lotura duten gaiei buruzko ariketa bat edo batzuk izango dira, praktikoa eta/edo teoriko-praktikoa. Epaimahaiak hala erabakiz gero, ariketa hau edo honen atalen bat horretarako egokia den informatika-aplikazioa erabiliz egingo da.

Ariketak gehienez ere 15 puntu izango ditu, eta hurrengo probara pasatzeko, gutxienez, 7,5 puntu lortu beharko dira.

— Hirugarren ariketa: Euskara. Derrigorrezkoa eta baztertzailea.

Euskarako froga. Izangaien euskara maila neurtzeko ahozko eta idatzizko froga egingo da. Derrigorrezko 4. hizkuntza eskakizunari dagokion euskera maila dutela egiaztatu beharko dute. Ez da punturik emango eta izangaiak gai edo ezgai sailkatuko dira, froga hau gainditzen ez dutenek hautaketa bidetik baztertuta geldituko dira.

Froga honek barne eraginak izango ditu eta Bergarako Udalak ez du inongo ziurtagiririk luzatuko.

Ez dute froga hau egin beharrik izango ziurtatzen dutenak 4. hizkuntza eskakizunarekin parekatutako agiriren baten jabe direla, betiere, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria egokitzeko apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuak jasotakoaren arabera.

Aurkeztutako inork egiaztatzen ez badu 4. hizkuntza eskakizuna, 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenek jarraituko dute prozesuarekin.

Egiaztapen hau froga hasi baino lehen aurkeztu beharko da.

LEHIAKETALDIA:

Instantziarekin batera aurkeztutako ziurtagiriak horrela baloratuko dira:

1. Lan-esperientzia:

- a) **Administrazio publikoan, antzeko funtzio eta ardurak betetzen duen esperientzia: 0,2 puntu hilabeteko, gehienez ere 6 puntu lortu arte.**
- b) **Enpresa pribatuan, Administrazio Publikoari hirigintza-gaietako aholkularitza eta kudeaketa-zerbitzuak ematen duen esperientzia: 0,1 puntu hilabeteko; eta eraikin berrien obra nagusiak eta/edo eraisteak zuzentzen duen esperientzia: 0,1 puntu zuzentze-lan bakoitzeko. Gehienez ere, 4 puntu lortu ahal izango dira.**

Lanaldi partzialetan emandako zerbitzuak modu proportzionalan baloratuko dira.

2. Prestakuntza-ikastaroak.

— **Deitutako lanpostuaren funtzioekin zuzeneko lotura duten prestakuntza-ikastaroak honela baloratuko dira, eta, gehienez ere, 5 puntu lortu ahal izango dira:**

— **20 eta 50 ordu arteko ikastaroak: 0,50 puntu.**

— **51 eta 75 ordu arteko ikastaroak: 1,00 puntu.**

— **75 ordu baino gehiagoko ikastaroak: 1,50 puntu.**

Atal honetan, epaimahaiak zentro ofizialetan egindako edo homologatutako ikastaroak soilik hartuko ditu kontuan: INAP, IVAP, Eskola Profesionalak, Eskola Ofizialak eta Unibertsitateak.

20 orduz azpiko ikastaroak eta ordu-kopurua zehaztu gabe dutenak ez dira kontuan hartuko.

8.- GAITASUNAREN FASEA GARATZEKO ERA

Epaimahaiak, hala erabakiz gero, alda dezake zazpigarren oinarrian adierazitako ariketen hurrenkera, eta egun berean proba bi egitea ere erabaki dezake.

Epaimahaiak ariketak egiteko deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak, baita ezinbesteko arrazoiengatik bada ere, hautapen prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

Gainditu beharreko ariketa bakoitza burutu ondoren, Epaimahaiaren erabakiz, iragarki taulan emango da argitara ariketa gainditu duten izangaien zerrenda.

9.- EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA

Izangai bakoitzak bi faseetan lortu dituen puntuak batuta aterako da haren azken kalifikazioa, eta batura horrek erabakiko du izangaien lehentasun hurrenkera.

Puntuetan berdintasuna gertatuz gero, ondoko irizpide hauen arabera ebatziko da, jarrita dauden hurrenkeran:

- a) Proba praktikoetan puntu-kopururik handiena ateratzea.
- b) Teoria proban puntu-kopururik handiena ateratzea.
- c) Epaimahaiak ariketekin hasi aurrez erabakitzen duen irizpidea.

Ariketak balioztatu ondoren, Epaimahaiak iragarki taulan agerian jarriko ditu neurketa gainditu duten izangaien izenak, lortu dituzten puntuen arabera hurrenkeran antolatuak: puntu gehienekotik gutxienekora.

Epaimahaiaren iritziz deialdira aurkeztutako izangaien artean ez badago lanpostua betetzeko gutxienezko baldintzak betetzen dituenik, deialdia bete gabe aldarrika dezake.

Epaimahaiak ezingo du, inolaz ere, deialdiko lanpostuak baino izangai gehiago proposatu.

Epaimahaiak Bergarako Udaleko organo eskudunari igorriko dio akta, behar den izendapena egin dezan.

Proposatua izan den izangaiak, izendapena argitara ematen denetik hasi eta 20 egun naturaleko epean, lehiaketan parte hartzeko oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztuko ditu.

Ezarritako epean, eta ezinbesteko arrazoiren batengatik izan ezean, izangaiak agiriak aurkezten ez baditu, edo eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen ez badu, ezingo da kontratatu izan, eta bere jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira. Kasu horretan, lehiaketa gainditu eta azken kalifikazioaren hurrenkeran ondoren dagoenaren edo daudenen aldeko proposamena egingo du organo eskudunak.

10. KONTRATAZIOA

Organo eskudunak Epaimahaiak proposaturiko izangaiari behin behineko kontratua egingo dio aurreko oinarrian esandako agiriak aurkeztu eta gero. Kontratua egin aurretik edo frogaldiak irauten duen epealdian enpresa-medikuaren ikuskapena pasatu beharko du, bere osasun egoera ona dela eta lanpostuaren eginkizunak betetzeko gai dela egiaztatzeko.

Frogaldiak 3 hilabeteko iraupena izango du.

Epe hori amaitu aurretik, dagokion arduradunak probaldian diharduen langileari buruzko txostena egingo du, eta erakutsi dituen gaitasun hauek hartuko ditu kontuan txosten horretan: lanerako ahalmena eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta eraginkortasunaren zentzua, lanerako prestasuna eta ekimena, eta lanarekiko interesa.

11.- DOKUMENTAZIOA ITZULTZEA

Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiak, kontratatuko direnek eta lan-poltsarako izendatuko direnek izan ezik.

Hautaketa prozesua bukatu eta 3 hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du Udalak.

12.- PROZESUAREN ARGITALPENAK.-

Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (onartuen eta baztertuen zerrenda, oposizioaldiko emaitzak, lehiaketaldiaren emaitzak...) Bergarako Udaleko Web orrian ere argitaratuko dira (www.bergara.net).

Datu pertsonalen babeserako araudiari jarraituz, edozein izangai edo partehartzailek izango du bere datuak eskuratu, zuzendu edo ezabatzeko eskubidea; horretarako eskaera aurkeztu beharko du helbide honetara bidalitako idatziaren bitartez: Bergarako Udala, San Martin de Agirre plaza 1, 20570 Bergara.

13. GORABEHERAK.

Epaimahai kalifikatzailea eskuetsirik dago sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta lehiaketa-oposizioaren jarduera ona zaintzeko beharrezko diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan eta aplikazio osagarriko legedian xedatu ez diren kasuetarako.

14. INPUGNAZIOA.

Interesdunek oinarri hauen aurka egin dezakete –inpugnatu–, indarrean dagoen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako epe eta moduan.

BERGARAKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE BERGARA

ESKABIDEA / SOLICITUD

Lanpostua / Plaza: ALDI BATERAKO ARKITEKO TEKNIKOA
CONTRATACIÓN TEMPORAL DE UN ARQUITECTO TÉCNICO

Frogetan erabili nahi duen hizkuntza: Lengua en que desea realizar las pruebas

Euskara
Euskera

Gaztelera
Castellano

DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES

Izen-abizenak <i>Nombre y apellidos:</i>					
NAN zkia: <i>DNI n°:</i>		Jaioteguna: <i>Fecha de nacimiento</i>		Telefonoa <i>Teléfono</i>	
Helbidea: <i>Domicilio:</i>					
Herria: <i>Localidad:</i>		Posta kodea: <i>Cód. Postal:</i>			

IKASKETAK / FORMACIÓN

--

LANEKO ESPERIENTZIA / EXPERIENCIA LABORAL

Enpresaren izena Nombre de la empresa	Kontratuaren iraupena Duración del contrato	Betetako lanpostua Puesto de trabajo ocupado

BESTELAKO MERITUAK / OTROS MÉRITOS (Ikastaroak, mintegiak, diplomak... / Cursos, seminarios, diplomas...)

Eskatzaileak deialdiaren oinarrietan azal dutako eskakizun guztiak betetzen dituela adierazten du eta, hortaz, onartua izatea eskatzen du.

Era berean adierazten du Bergarako Udala

BAIMENTZEN DUELA **EZ DUELA BAIMENTZEN**
bere datu pertsonalak beste Herri Administrazio batzuei emateko, beti ere eskaera honen bidez eskuratu nahi duen lanpostuaren antzekoetan sor dakizkiekeen aldi baterako langile-beharrei erantzuteko.

El solicitante declara cumplir todas las condiciones exigidas en las bases y, en consecuencia, solicita ser admitido.

Igualmente declara que

SÍ **NO AUTORIZA** al Ayuntamiento de Bergara para que facilite sus datos personales a otras Administraciones públicas que así lo soliciten, siempre que sea al objeto de cubrir necesidades de personal no permanente en puestos similares al que opta mediante esta instancia.

SINADURA / FIRMA

OHARRA: Eskaera horri honetako datu pertsonalak dagokionaren onespenearekin jasotzen dira eta Bergarako Udalak behar bezala baimendutako fitxeroetan sartuko ditu. Datu horiek bakarrik udal kudeaketarako erabiliko dira, baina beste administrazio publikoei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie abenduaren 13ko 15 / 1999 Lege Organikoan, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoan, aurreikusitako kasuetan.

Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute ondorengo helbidera zuzenduta: Bergarako Udala.-San Martin Agirre plaza, 1.- 20.570 Bergara.

NOTA: Los datos personales contenidos en la presente solicitud son recogidos bajo el consentimiento de la persona afectada y serán incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados titularidad del Ayuntamiento de Bergara. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal.

Las personas interesadas podrán ejercer los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición dirigiéndose a: Bergarako Udala.- San Martin Agirre plaza, 1.-20.570 Bergara.